

GUARDIA

1000

Tabernarako jarduera, Guardiako Páganos kaleko 46 zenbakian

Viñedos Lacalle y Laorden SA titularrak tabernarako jarduera baten proiektua aurkeztu dio udal honi, hain zuzen ere, Guardia udalerriko (Araba) Páganos kaleko 46 zenbakian "tabernarako" jarduerarena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko martxoaren 9ko 165/1999 Dekretu Orokorraren 3.2 artikuluan eta harekin bat datozen gainerako xedapenetan araututakoa betez, proiektu horri buruzko espedienteak hamabost egunez egongo da jendaurrean, jarri nahi den jarduerarengatik bere burua kaltetuta ikusten duen orok egoki deritzen oharra egin ahal izan ditzan.

Guardia, 2013ko otsailaren 15a.- Alkate-lehendakaria, JOSÉ MANUEL AMÉZAGA CUENDE.

LANTARON

973

Bergondako SAUR-3 sektoreko urbanizazio proiektuaren hasierako onarpena.

Udal honetako alkatearen 2013ko otsailaren 19ko Ebazpenaren bidez, hasierako onarpena eman zaio Bergondako SAUR-3 sektorearen plan partzialari eta sektorea urbanizatzeko jarduera programari (biak behin betiko onartuak) dagokien urbanizazio proiektuari. Proiektua SUSTATU, Lantarongo Sustapen eta Garapen Bazkuna, SA udal sozietate publikoak eskatuta izapidetzen ari da, sustapen publikoko zortzi etxebizitza eraiki ahal izateko, M^a Carmen Gómez Puente eta Luis Gómez Puente arkitektoek idatzitako dokumentazioaren arabera.

Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 196. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, proiektua jendaurrean jarriko da hogeit egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrela, interesdunek udal idazkaritzan (Udalaren kalea, 2. Komunioi) aztertu ahal izango dute, bulego orduetan, eta egoki irizitako alegazioak aurkeztu, hala badagokio.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2013ko otsailaren 20a.- Alkatea, JAVIER URIARTE JAIRO.

LANTARON

974

Salcedoko kaleen urbanizazio proiektua behin betiko onartzea.

Alkatearen 2013ko otsailaren 19ko Ebazpenaren bidez, behin betiko onartu da Salcedoko kaleen urbanizazio proiektua, Salcedoko Administrazio Batzarrak sustatutakoa, Alberto Julián Vigalondo eta Juan Carlos Castrejana López arkitektoek idatzitako behin betiko urbanizazio proiektuaren dokumentazioaren arabera; izan ere, txertatu dira hasierako onarpenaren agiriari adierazitako aldaketak, Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio zuzendariak martxoaren 18an emandako 694/2010 Ebazpenaren arabera, horiek betetzea baldintza bat zen eta.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da, Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 194.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

LAGUARDIA

1000

Actividad de bar en calle Páganos 46 de Laguardia

Por el titular, Viñedos Lacalle y Laorden S.A. se ha presentado en este Ayuntamiento, proyecto de actividad de "Bar", en Calle Páganos nº46, en este término municipal de Laguardia (Álava).

En cumplimiento de lo prevenido en el art. 3.2 del Decreto 165/1999 de 9 de marzo, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y demás disposiciones concordantes, se abre información pública por término de quince días, para que quienes se consideren afectados de algún modo por la actividad pretendida, puedan hacer las observaciones pertinentes.

Laguardia, 15 de febrero de 2013.- El alcalde presidente, JOSÉ MANUEL AMÉZAGA CUENDE.

LANTARÓN

973

Aprobación inicial Proyecto de Urbanización del sector SAUR-3, de la localidad de Bergüenda.

Por Resolución de Alcaldía de este Ayuntamiento, de fecha 19 de febrero de 2013, se ha aprobado inicialmente el Proyecto de Urbanización relativo al Plan Parcial del sector SAUR-3, de la localidad de Bergüenda, así como al Programa de Actuación Urbanizadora, aprobados ambos definitivamente, que se tramita a instancias de la Sociedad Pública Municipal Suztatu, S.A., Sociedad de Promoción y Desarrollo de Lantarón-Lantarongo Suztatu y Garapen Bazkuna, S.A., para posibilitar la construcción de ocho viviendas de promoción pública, según documentación redactada por los Arquitectos doña M^a Carmen Gómez Puente y don Luis Gómez Puente.

De conformidad con lo establecido en el artículo 196 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo, el referido Proyecto se somete a información pública por plazo de veinte días, a contar del siguiente al de la publicación del anuncio en el BOTHÁ, durante el cual podrá ser examinado en la Secretaría del Ayuntamiento de Lantarón, sito en C/ Ayuntamiento, 2, de Comunión, durante las horas de oficina y presentar, en su caso, las alegaciones que estimen procedentes.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Comunión, a 20 de febrero de 2013.- El alcalde, JAVIER URIARTE JAIRO.

LANTARÓN

974

Aprobación definitiva Proyecto de Urbanización de las calles de Salcedo.

Por Resolución de Alcaldía de este Ayuntamiento, de fecha 19 de febrero de 2013, se ha aprobado definitivamente el Proyecto de Urbanización de las calles de la localidad de Salcedo, promovido por la Junta Administrativa de Salcedo, de acuerdo con la documentación del Proyecto de Urbanización definitivo redactado por los Arquitectos don Alberto Julián Vigalondo y por don Juan Carlos Castrejana López, al haberse introducido las modificaciones señaladas en la aprobación inicial, de conformidad con las condiciones establecidas en la Resolución N^o694, de 18 de marzo de 2010 del Director de Obras Públicas y Transportes de Diputación Foral de Álava, y a cuyo cumplimiento se condicionaba.

Lo que de conformidad con lo previsto en el artículo 194.2 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se hace público para general conocimiento.